

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure ideia aurrera eramateko behar ditugun funtsezko baliabideei egingo diogu erreferentzia, eta honela banatuko ditugu:

Giza baliabide eta baliabide intelektualei dagokienez, enpresa honen bost bazkideak web-gunean lan egiten duten irakasleak izango gara. Bakoitzak dituen abileziak kontuan harturik, alde batetik, Irenek, historia eta geografia eta artearen historia klaseak emango ditu; Alvarok, zientzietako klase guztiak emango ditu, hau da, matematika, fisika, kimika eta marrazketa teknikoa; Oierrek, filosofia eta psikologia irakatsiko ditu; Unai, informatika klaseak emango ditu; eta azkenik, Norak, hizkuntzetako arloan arituko da, hala nola, euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.



Baliabide fisikoei dagokienez, enpresa hau martxan jartzeko, ordenagailua izatea ezinbestekoa da, eta hau erabili ahal izateko, wi-fi iturria beharrezkoa da. Bestetik, ibilgetu ukiezina izango den aplikazioa Unai sortuko du, informatikako klaseak emango dituenak, eta momentu oro eguneratzen joango da aplikazio hori.

Finantza baliabideei dagokienez, kapitala bazkide guztion artean jarriko dugu. Bakoitzak ordenagailu bat eta 400€ ipiniko ditugu kapital gisa eta hasierako gastuei aurre egiteko; bestetik, Institutuko Gurasoen Elkarteari eskatuko diogu diru laguntza.